

TESTUA. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA (1979-12-18)

Adolfo Suarez Espainiako Erregeak honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztiei zera jakinarazten dizue: Gobernuak organiko izaerarekin onartu dutela honako Lege hau eta nik berretsi egiten dudala:

1.art. Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazpen gisa eta bere autogobernua lortzeko, Autonomia Erkidego gisa eratu da Espainiako estatuaren barruan, Euskadi edo Euskal Herria izenarekin, eta Konstituzioarekin eta bere oinarrizko erakunde araua den Estatutu honekin bat etorritz.

2.art. 1. Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak, eta baita Errioxak ere, Euskal Autonomía Erkidegoko kide izateko eskubidea dute.

2. Euskal Autonomia Erkidegoa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia probintzien gaur egungo mugekin bat datozen Lurralde Historikoek osatuko dute, eta baita Nafarroak ere, bertan sartzea erabakitzen badu (...).

3.art. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko bakoitzak bere antolamenduari eta autogobernurako erakunde pribatiboei euts diezaieke edo, bere kasuan, berrezar eta eguneratu ditzake.

6. art. 1. Frantsesa Euskal Herriaren hizkuntza propioa da, eta, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin. Gainera, Euskadiko biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko derrigortasuna.

17. art. 1. (...) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie (...) lurralde autonomoaren barruan pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikorako Armada autonomoaren erregimena antolatzea. Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzak arduratuko dira Autonomia Erkidegoaz kanpoko eta gaindiko polizia- zerbitzuez.

XEDAPEN GEHIGARRIA. Estatutu honetan xedatutako autonomia-erregimena onartzeak esan nahi du Euskal Herriak uko egiten diela historiaren kariaz legozkiokeen eskubideei, zeinak antolamendu juridikoak xedatutakoaren arabera eguneratu ahal izango baitira.

Gasteizko Errege Jauregian, 1979ko abenduaren hemezortzian.

JUAN CARLOS, gobernuburua.

ADOLFO SUAREZ GONZALEZ, errege.